

1993ko EKAINAren 21eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamahiruko ekainaren hogeitabatean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTEN ONARPENA

Idazkariak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

MUSKIL IZENEKO ELKARTEA

Kirol Batzordeko partaidea den, Mikel Zelaia Ezenarro Udalkideak, hitza harturik, Muskil izeneko Elkarte sortzearen arrazoiak eta Elkarte horrek dituen helburuen berri eman du, bere funtzionamendurako onartu beharreko estatutuak aurkeztuaz.

Estatutuak, hitzez hitz, honela diote:

LEHENENGO ATALBURUA

1. Atala.-

Legebiltzarrak onartutako Otsailaren 12ko 3/1988 Elkartearen Legearen ezarritakoaren arabera, MUSKIL izeneko Elkarte osatu da, bazkideak nahi duten Udalek izan daitezkelarik.

Aipatutako Elkarteak honako araubidea izango du: Elkartei buruzko Legearena, Estatutu hauek -beti ere, Legearen aurkakoak ez badira-, bere Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak -Legearen eta/edo

Estatutoen aurkakoak ez badira- eta Eusko Jaurlaritzak onar ditzan araudi mailako erabakiak, azken hauek osagarri besterik izango ez direlarik.

2. Atala.-

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

- a) Nekazal herrien kultur nortasuna babestu eta bultzatu.
- b) Baldintza lagungarriak eragindu aurreramendu sozial eta ekonomikoa lortzeko.
- c) Baldintza lagungarriak eragindu berdintasun eskubidea lortzeko edozein diskriminapenik gaindituz.
- d) Elkarkideen sudu orokorrak defendatu eta ordezkatu.

Helburu horiek lortzeko, ezarritako legezko baldintzak bete ondoren, honako ekintza hauek eramango dira aurrera:

- a) Kirol eskola bizkortu.
- b) Eskola eta gurasoekiko harremanak sakondu.
- c) Elkarkideen arazoei buruzko azterlanak burutu.
- d) Elkarkideen arteko harremanak sustatu.
- e) Beste edozein ekonomiko, sozial edo kultur ekintza.

3. Atala.-

Elkarte honen egoitza nagusia Asteasuko Udaletxean egongo da.

Elkarte egoitza tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza Batzordeak hartuko du, eta Elkarte Erroldari helbide berriaren berri emango dio.

4. Atala.-

Elkarte hau betirako eratzten da eta soilik, Ohiz Kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez desegin ahal izango da, VI. Atalburuan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Elkarte honen ekintzak bereziki kide diren herrietan gauzatuko dira.

BIGARREN ATALBURUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO SAILAK

ELKARREANGO IHARDUTE-SAILAK

5. Atala.-

Elkartearen Zuzendaritza eta Administrazioa ondorengo sailen gain egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra, sail gorena delarik.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritzaren elkarreango ihardute sail iraunkorra delarik.

BATZAR OROKORRA

6. Atala.-

Bazkideen nahiak, bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira. Ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

7. Atala.-

Batzar Orokorraren Ohizko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da, lehenengo hiruhilabetekoaren barruan, honako puntu hauek onartzeko:

- Elkartearen iharduketa-egitasmu orokorra.
- Aurreko urtean izandako gastu eta diru sarrerei dagozkien kontuen egoera.
- Hurrengo urteko aurrekontua, eta
- Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa, Batzar Orokorraren aztertarauekin bat eta haren kontrolpean jardun beharko duelarik.

8. Atala.-

Aurreko atalean jasotakoaren kaltetan gabe, Batzar Orokorrak ondoko erabakiak hartzeko ahalmena du:

- 1.- Estatutuak aldatzeko, hurrengo atalean jasotakoaren arabera.
- 2.- Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko.
- 3.- Elkarte desegiteko, hala badagokio.
- 4.- Beste Elkarte batzurekin Federakuntza edo Konfederakuntza osatzeko edo horietakoren batetik ateratzeko.
- 5.- Kuoten kopurua finkatzea.
- 6.- Ondasunak erabiltzeari eta besterenganatzeari buruzko erabakiak hartzea eta Herri Onurakotzat jotzeari buruzkoak.

9. Atala.-

Batzar Orokorra, Zuzendaritza Batzordeak bere kabuz erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, edota bazkideen %25ak eskatuta, kasu honetan, bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituztelarik.

Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bildu beharko da:

- a) Estatutoak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

10. Atala.-

Batzar Orokorrerako deiak, nahiz ohizkoak nahiz bereziak, idatziz egin beharko dira, bilera-tokia, eguna, ordua eta Aztergaien Zerrenda azalduz.

Deia egiten den egunetik Batzarra lehen deian egingo den egunera bitarteko epea gutxienez 7 egunekoa izango da. Batzarrerako bigarren deia egitea egokituko balitz, egingo diren bi batzarren artean gutxienez ordu bete igaro beharko da.

Iragarkian ez balego jasota 2. deialdi-eguna, batzar eguna baino 2 egun lehenago azaldu beharko da noiz izango den.

11. Atala.-

Batzar Okorrrak, bai ohizkoak eta bai bereziak, balioz osoturik geldituko dira lehenengo deialdian bazkideen erdia baino gehiago bertaratuz edo ordezkotzarik egonez gero. Eta 2. deialdian berriz, bertaratutako bazkideen edozein delarik.

Bazkideek Batzar Orokorreran parte hartzeko, beste edozein bazkideren gain utzi dezakete beraien ordezkotza. Esku hori idatziz egin beharko da eta Batzarreko Idazkariari eman beharko zaio.

12. Atala.-

Batzar Orokorraren erabakiak botu gehiengoz hartuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

13. Atala.-

Zuzendaritza Batzordea, Lehendakariak, Idazkariak eta Diruzainak osatuko dute. Gutxienez hileroko bildu beharko dira, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.

14. Atala.-

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 4 aldiz jarraian, edo bizbatean 6 aldiz ez bada joaten, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen behintzat.

15. Atala.-

Zuzendaritza Batzordean kargu dituztenak, Batzar Orokorra hautatuko ditu eta 2 urtetarako izango dira, Batzarrak izendapenak ezeztatzen ez baditu.

Kargu horiek, denak batera berrituko dira.

16. Atala.-

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.
- b) Adinez nagusia izatea eta herritar eskubide guztiak izatea.

17. Atala.-

Zuzendaritza Batzordeko kargua, Batzar Orokorrak egindako izendapena onartutakoan hartuko da.

Karguak ordainik gabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

18. Atala.-

Zuzendaritza Batzordeko Kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia betetakoan.
- b) Kargua uztean.
- c) Bere Udalak bazkide izateari utzitakoan.
- d) Ezintasun zioak dituztean.
- e) Batzar Orokorrak ezeztearen erabakiz gero, Estatutu hauetako 15. atalean jarritakoaren arabera.
- f) Udalak berritzen direnean.
- g) Heriotzaz.

a) eta f) puntuetan agertzen dena baldin bada kargua uztearen arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek baita jarraitu beharko dute Lehenengo Batzar Orokorra egin arte, Batzar horretan aukeratuko bait dira kargudun berriak, Batzar Orokorrerako deia bi hilabeteko epearen barruan zabalduko delarik.

b), c), d), e) eta g) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia,

Zuzendaritza Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onartu ala ezeztu. Ezezkoa bada, dagokion izendapena egingo da.

Batzorde honen osakeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erroldari.

19. Atala.-

Zuzendaritza Batzordearen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen ohizko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren aztertarauen arabera eta bere esanetara.
- b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Batzar Orokorrari aurkeztea, honek onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako aztergai zerrenda egitea, eta ohizko Batzar Orokorraren eta bereziki deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- f) Batzar Orokorrak berari izendatuta ez duen beste edozein eginkizun.

20. Atala.-

Zuzendaritza Batzordeak, Lehendakariak eta, hala balegokio, Lehendakariordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileretako buru Lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, Lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, Batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu.

Idazkariak bilera agiriak egingo ditu. Agiri horiek dagokien Liburuan jasoko dira.

BAKARREANGO IHARDUTE-SAILAK

LEHENDAKARIA

21. Atala.-

Lehendakariak Elkartearen legezko ordezkaritza bere gain du. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien buru izango da.

22. Atala.-

Zuzendaritza Batzordeari edo Batzar Orokorrari oso osoan ez dagozkien aginpideak ere Lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean eta bai bestean sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta botuko berdinketa gertatuz gero, botu ebazleaz erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea. Aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuren horien berri ematea.

LEHENDAKARIORDEA

23. Atala.-

Lehendakariordeak Lehendakariari lagunduko dio, eta honen aldibaterako ezintasun bitartean ordezkatu egingo du. Era berean, Lehendakariak berari emandako ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

24. Atala.-

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen Liburua zaintzea, eta Agiri Liburuaren zaintza eta idazketaren ardura izatea.

DIRUZAINA

25. Atala.-

Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, kontuen sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Guzti horiek, Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari aurkeztu onar ditzan.

HIRUGARREN ATALBURUA

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

26. Atala.-

Elkarte honetako bazkide, nahi duten Udal guztiak izan daitezke.

27. Atala.-

Bazkide orok honako eskubide hauek ditu:

- a) Elkarte-Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta iharduketak aurkatzekoa, aurkatutako erabakiaren edukina ezagutu edo ezagutzeko aukera egunetik hasi eta berrogei eguneko epean.
- b) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu kontuen egoera, eta Elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitekoa.
- c) Batzar Orokorretan hitzegiteko eta botua emateko eskubidea erabiltzekoa, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.
- d) Elkarteko Estatutuon arabera, Elkarteko Zuzendaritza-Sailetan parte hartzekoa eta sail horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
- e) Indarreango legedian oharmandako bazkide-zerrendan agertzekoa eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzekoa.
- g) Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzekoa, eta bazkideen erabilerarako gauzak erabiltzekoa (liburutegiak, elkarte egoitza, e.a.) Zuzendaritza Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
- h) Zigortze-neurriak hartu baino lehen bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzekoa eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak azaldu dakizkionekoa. Neurri horiek hartzeko arrazoiek bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu dezakete soilik.

28. Atala.-

Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Elkartearen helburuak iristeko lankidetzak ekintsua ematea.

- b) Batzar Orokorrak ezarritako bazkide-saria ordaintzea, gastuak ordaintzeko.
- c) Estatutu hauek eta Elkartearen Zuzendaritza Sailek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

ZIGOR ARAUAK

29. Atala.-

Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

Zigorra, 15 egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik Elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke, beti ere 31 eta 34 bitarteko atalen arabera, biak barne.

Horretarako Elkarteburuak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko erabakia hartu ahal izango du. Azterketa horiek idazkaritzak eramango ditu aurrera, Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko diolarik. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik arazoa doakionak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

Aipatu erabakiaren aurka -beti ere arrazoiak eman beharko dituena- Batzar Orokorrera jotzerik izango da 27.a) atalean oharmandako ekintzei ekitearen kaltetan gabe.

BAZKIDETASUNA GALTZEA

30. Atala.-

Hona bazkidetasuna galtzeko arrazoiak:

- a) Bazkidea nahita aldentzea.

- b) Egotzi izana, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako zigorra dela eta honako kasu honetan:

Estatutuotan Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako bete beharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

31. Atala.-

Bazkideren bat aurreko atalean aipatutako azkenengo kasuan aurkituz gero, Elkarteburuak agindu diezaioke Idazkariari, horien berri egokia lotzearren, aurretiazko eginbide batzu egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, Elkarteburuak ekintza bertan bera uztea, zigor espedienteari ekitea -29. atalean oharremendako eran-, edota Elkartetik egozteko espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

Azken kasu horretan, idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaketen berri emanez. Salaketa horiei erantzuteko bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu 15 eguneko epean. Epe hori amaituta, beti ere, Zuzendaritza Batzordeko lehenengo bilkurara eramango du kasua eta bertan hartuko da erabaki egokia. Horretarako batzarkideetatik 2 herengo quoruma beharrezkoa izango da.

32. Atala.-

Elkartetik kanporatzeko erabakia dakionari jakin araziko zaio eta, ere berean azalduko errekurtsua aurkez dezakeela egin dadin hurrengo Batzar Orokor berezian. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren barruan, aipatu errekurtsua nahikoa izango da Batzarra egiteko. Bien bitartean, Elkartearen Lehendakariak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzi arazi egin beharko dio.

Kanporatzeko espediente batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak doakionak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza eman ahal izan diezaion Batzar Orokorrari honek dagokion erabakia har dezan.

33. Atala.-

Kanporatze erabakia -beti ere arrazoiak emanda- dagokionari jakin eraziko zaio eta honek, eskubideaz baliatuz, Hautategietara jo ahal izango du bere ustez aipatu erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

34. Atala.-

Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan -berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako-, lehendik betegabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, ala badagokio.

LAUGARREN ATALBURUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUAK

35. Atala.-

Elkartearen sortze ondarea 0 pezetakoa da.

36. Atala.-

Elkartek, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru baliabide hauek izan ditzake.

- a) Zuzendaritza Batzordeak ezarritako sarrera kuotak.
- b) Batzorde berak erabakitako aldizkako kuotak.
- c) Dazkan ondasunetatik ateratzen dituen ekoizpenak eta dagozkion eskubideak. Baita legez hartu ditzakeen diru laguntza, ondare eta dohaintzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontutan harturik Zuzendaritza Batzordeak

erabakitako ekintza bidezkoak dakarzkiten irabaziak, beti ere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

BOSTGARREN ATALBURUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

37. Atala.-

Zuzendaritza Batzordearen ekimenez edota bazkideen gehiengo absolutoak eskatuta Zuzendaritza Batzordeak ala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza Batzordeak ezarritako arteztarauei jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarriko duela egitasmoa amaitzeko epea.

38. Atala.-

Aldaketa egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Elkarteburuak egingo den lehenengo Zuzendaritza Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo berriz ere lantaldeari itzuliko dio atzera ere aztertzeke.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Batzar Orokor Bereziaren aztergai-zerrendan sartzea erabakiko du edo horretarako propio bilerarako deia egitea.

39. Atala.-

Batzarrerako deiarekin batera Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenon berri Batzar Orokorrari emango zaio, beti ere Batzarra egin baino 6 egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak, nahiz banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu-aukera izan beharko du.

SEIGARREN ATALBURUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE ONDAREAREN ZERTARAKOA

40. Atala.-

Elkartea honako hauengatik desegingo da:

- 1.- Bazkideen nahiaz. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean azaldu beharko da eta bertan daudenetatik gehiengoaren botuak jaso beharko ditu.
- 2.- Herri Legeen Bildumako 39. atalean azaltzen diren arrazoiez.
- 3.- Epai bidez.

41. Atala.-

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Ondoren, aipatutako Estatuak behar adina eztabaidaturik eta kontutan harturik Elkarte hori sortzea oso onuragarria izango dela herriarentzat, Udalak, aho batez, eta Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 47-3 artikulua xedatutako kuoruma beteaz, erabaki da:

- 1.- MUSKIL izeneko Elkartearen Estatutoen testua onartzea.
- 2.- Elkartekide izateko nahia azaltzea eta Udal honen ordezkari, MIKEL ZELAIA EZENARRO Udalkidea izendatzea.

1.992 KONTU OROKORRAREN ONARPENA

Idazkari-kontuhartzaileak, 1.992 urteko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra aurkeztu du.

Aurkeztutako Kontu Orokorrean sartzen diren agiriak, hauek dira:

1.992 urteko Aurrekontu Orokorraren Likidazioa.

1.992 urteko Aurrekontu Orokorraren Kreditu Aldaketak.

1.992 urteko A.B.I.L.

1.992 urteko Diru-Kontuak eta Ondare Administrazioako Kontua.

1.992 urteko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorrari buruz, Idazkari-Kontuhartzaileak eta Hazienda Batzordeak luzatutako aldeko txostenak ikusirik, eta Kontu Orokorra bera azterturik, 1.992 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN KONTU OROKORRA, aho batez onartua izan da.

1.993 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1.988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 1.993 Urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARRERAK

1 Kap. - Zerga Zuzenak	7.786.652,- Pezta
2 Kap. - Zeharkako Zergak	100.000,- Pezta
3 Kap. - Tasak eta beste diru sarrerak	1.929.401,- Pezta

4 Kap. - Transferentzi Korrontek	39.704.973,- Pezta
5 Kap. - Ondare Sarrerak	600.130,- Pezta
7 Kap. - Kapital Transferentziak	16.178.844,- Pezta
9 Kap. - Pasibo Finantzieren Aldaket	15.000.000,- Pezta

GUZTIRA 81.300.000,- Pezta

=====

IRTEERAK

1 Kap. - Pertsonalaren lansariak	19.447.714,- Pezta
2 Kap. - Ondasun arrunt eta zerbitzuen.	17.068.205,- Pezta
3 Kap. - Interesak	1.971.258,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korrontek	5.382.609,- Pezta
6 Kap. - Inbertsio Errealak	31.426.214,- Pezta
9 Kap. - Pasibo finantzieren aldaketak	6.004.000,- Pezta

GUZTIRA 81.300.000,- Pezta

=====

1.993 urterako Aurrekontu Orokorra eta Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartu dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko dituen Apirilaren 2ko 7/1.985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1.986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laboral finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dituelarik.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

LANPOSTUAREN IZENA LANPOSTU KOP.-TALDEA-EGOERA-OHARRAK

Idazkari-Kontuhartzailea	1	B	J	70%
Gizarte Laguntzailea	1	B	J	16%
Lanetako Ofiziala	1	D	J	
Administrari Laguntzailea	1	D	J	
Garbitailea	1	E	BB	
Etxez Etxeko Laguntzailea	1	E	BB	
Peoia	1	E	BB	

Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartu dira.

**EKAIN ASESORITZAKO ABOKATU ETA PROKURADOREEI AUZITARAKO
AHALMEN OROKOR NOTARIALA EMATEA**

Alkateak, hitza harturik, dio:

Udaleko Asesoritza daraman, Ekain etxeari aspalditik dago, auzitarako ahalmen orokor notariala emana.

Ekain Asesoritzaren barruan, abokatuena aldaketak egon direnez, ahalmen hori berritzeko beharrean gaude.

Hau dela eta, Auzitarako Ahalmen Orokor Notariala berria ematea proposatu du, aurreago aipatzen diren Abokatu eta Prokuradoreei:

ABOKATUAK: JUAN LANDA MENDIBE
 LUIS URQUIZA UGARTE
 PAZ OCHO DE RETANA MONGELOS
 FELIPE GOMEZ ARRIARAN
 ARANTXA MARTINEZ LARRAURI

PROKURADOREAK: TOLOSA: CARMEN CHIMENO RODRIGUEZ

MARIA VEGA PEREZ ARROYO

DONOSTIA: BEGOÑA ALVAREZ LOPEZ
ISABEL MARIN CANO

BILBO: ALBERTO ARENAZA ARTABE
LYDIA ZABALA SALEGI
M^a DOLORES DE RODRIGO VILLAR

GASTEIZ: BLANCA BAJO PALACIOS
SOLEDAD CARRANCEJA DIAZ
CONCEPCION MENDOZA ABAJO

IRUÑEA: SANTOS JULIO LASPIUR GARCIA
FCO. JAVIER ECHAURI OZCOIDI

MADRID: ENRIQUE DE ANTONIO VISCOR
ISABEL FERNANDEZ-CRIADO BEDOYA

Alkateak luzaturiko proposamena, aho batez onartu da.

UDALETXEKO OBRA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Denon jakinekoa da, Udaletxean obra hasi zenean, azaldu ziren akatsak eta sortutako arazoak.

Guzti horrengatik, Foru Aldundiako Hirigintzako Diputatu Jaunak, ikustaldi bat egin ondoren, eta berak aurrikusitako berrikuntzak kontutan hartuaz, lehengo proiektuari eranskin batzuk egin zaizkio.

Eranskin hoiien kostuak, HOGEI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HAMALAU MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITAMEZORTZI (20.914.398,-)

Peztara igotzen dira, OTEGI Igeltsaritzak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, obra guztia, 45.000.000 ingurura igotzen delarik.

Eranskin horren gainean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste HAMAR MILIOI SEIEHUN ETA BERROGEI MILA (10.640.000,-) peztatako diru-laguntza emango du, gainontzeko guztiaren kargu Lizartzako Udala egin beharko duelarik.

Aipatutako guztia kontutan hartuaz, eta obrak jarraitu egin behar dutenez, OTEGI Igeltsaritzari, obra hoi jarraipena enkargatzea proposatu du, HOGEI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HAMALAU MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITAMEZORTZI (20.914.398,-) peztako aurrekontuarekin.

Alkateak eginiko proposamena, aho batez onartu da.

ARKITEKTO AHOLKULARITZAREN KONTRATAZIOA

Orain arte lanean aritu den Arkitektoarekin, Pilar Amenabar Zabala Andrearekin, euskera dela eta, sortu diren arazoak direla eta, berarekin hitzegin ondoren, beste arkitekto baten bila hasi zen Udala.

Gestio batzuk egin ondoren, JOSE M^o BRAVO ALBIZU Arkitektoa prest azaldu da lan hori egiteko, bere lanerako proposamena, hau delarik:

LIZARTZAKO UDALERAKO ARKITEKTO AHOLKULARITZARAKO LAN PROPOSAMENA

Udal Arkitekto kargurako hitzarmena finkatzeko baldintzak:

- 1.- Arkitektoaren eginkizuna honakoa izango da:
 - 1.1. Txosten eta erizpen eman bere funtzio teknikoarekin zer ikusirik duten gaitan, hauen artean Udal Obretako baimenetan eta lur-zoru lege barruan mugatzen diren era guztietako hirigintza arloko espedienteetan.

- 1.2. Udalerri barruan egiten diren obren ikuskapena eta jarraipena, emandako baimenen baldintzekin bat ote datozten zehazteko.
- 1.3. Arkitektur eta Hirigintza arloetan, Udal zerbitzuen antolaketaren zuzendaritza teknikoa.
- 1.4. Alkate eta Zinegotzi Jaun-Andreei laguntza eta aholkularitza lanak, erakunde publiko ezberdinetara egin behar izaten dituzten bisitetan.

2.- Lan Ordutegia.

Astean behin lanegun erdia, hau da 4 ordu.

Hasieran arratsaldean izango da Udalak finkatzen duen egunean. Hau aldatu ahal izango da gertaera horretara behartzen duenean, ordu kopurua mantentzen delarik.

3.- Hitzarmenaren iraupena eta luzapena.

Lanean hasten den egunetik kontaktzen hasita urtebeteko iraupena izango du eta bi aldeak ados egonik luzatu daiteke segidazko denboralditan.

Urtebetea baino lehen hitzarmena alde batetik eten egiteko, gutxienez hilabete aurretik beste aldeari adieraziriz. Bidaiak Udalaren kontu geratzen dira.

4.- Lanaren ordainsaria.

Arkitektoaren Elkargoak finkaturik duen, honako lanetako ordainsaria jasoko du: Orduko 3.750,- pezta.

Bidaiak ez dira kopuru horren barruan sartzen eta 47 pta/kmko ordainduko da.

5.- 1.964ko Otsaileko 7ko Estatuko Funtzionarien Legeak jartzen dituen bateraezintasun profesionalei lotuta egongo da Arkitektoa Lizartzako Udalaren eremuan.

Udalak sustatzen dituen beste Obren Proiektuak edo Hirigintza espedienteen erredakzio lanak eta Obren zuzendaritza lanak hitzarmen honetatik at gelditzen dira.

Proposamena azertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da, lanerako eguna, ASTELEHENA finkatuaz.

FORU ALDUNDIAKO LANGUNTZAREKIN, LANGILE BATEN KONTRATAZIOA

Udaletxekin lankidetzan Enplegua Sustatzeko Programari dagokionez (ikus Maiatzaren 7ko 9/1993 Foru Araua eta Maiatzaren 25eko 45/1993 Foru Dekretua), Foru Aldundiak jakinerazi digunez, Lizartzako Udalak, langile bat kontratatzeko diru-laguntza izango du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinerazi digunez, langile horren kontratazioa, honela egin behar da:

Dekretu hoiien Eskema Operatiboko "Kontratatzeko era" E paragrafoa kontutan hartuz, non kontratazioa INEMen aurkeztutako eskaintza generikoaren bidez egin beharko dela derrigorrez, Udalak aurkeztu beharko du INEMeko bulegoan ondoko dokumentazio hau:

- Kontratatu nahi den pertsonaren profilaren deskribapen xehetua.
- Kontratatu nahi direnak noiz hasi eta noiz amaituko duten beren lana, aurre-hautaketan denbora banatzeko.

- Eskaintza generikoaren eskaera egiteko orduan Udalak zehaztu beharko du berariaz programa honetako onuradunek lehentasuna dutela (ikus Foru Araueko 1. 2. artikulua eta eskema operatiboko B paragrafoa), hau da,

emakumezkoek, kualifikazio gutxiko gazteek, lehen enplegu bila dabiltzan gazteek, famili erantzukizunak dituztenek, langabezian luzaro edo inoiz lanik eduki gabe daudenek.

- INEMek, Udalak aurkeztutako eskaera eta eskualde horretakoak izan eta datu basean sartuta dituen enplegu eskatzaileen egitura kontuan hartuta, pertsona batzuen aurre-hautaketa bat egingo du lanbideen arabera.
- INEMek aurre-hautatutako pertsonak aurkeztuko dizkionean Udalari, behin-betiko hautaketa egingo du Udalak, berdintasun sozial eta kontratatu nahi diren pertsonen lanposturako duten egokitzapen printzipioak kontutan hartuz.

Guzti honengatik, interesatuta egon litezkeen Lizartzako langabetuen jakinean jartzeko, agiri bat kalean jartzea proposatu da, kontratazio horren berri emanaz, hala nahi izanez gero, INEM.eko bulegoetan beren izena eman dezaten.

Proposamena, aho batez onartu da.

CUBAREN AURKAKO BLOKEOARI BURUZKO ASKAPENAREN MOZIOA

ASKAPENAK (Herriekiko Euskal Elkartasuna) borondate oneko pertsonen gehiengo nahiarekin bat eginez,

AZALTZEN DU:

- Cubako herriak duela 33 urtetatik hona Amerikako Estatu Batuetako Gobernu desberdinen aldetik erabatekoa eta ezgizakorra den blokeo bat jasatzen ari dela. Blokeo hau Nazioarteko Eskubideen oinarritzko printzipioen aurka doala: Estatuaren berdintasun subiranoa, interbentziorik ez, e.a.
- Aipaturiko erasoak kalte izugarria egiten ari dela Cubako herritarrengan. Adibide bat aipatzeagatik, La Habana hirian elikadura pobre bategatik

2.000 pertsona dira ikusmena galdu dutenak.

- 1.992ko Azaroaren 24ean Nazio Batuen Asanblada Orokorrak aipaturiko blokeoaren aurka azaldu zela. Aipaturiko data honetan Asanblada Orokorra "AMERIKAKO ESTATU BATUEK CUBAREN AURKA EZARRITAKO EKONOMI, KOMERTZIAL ETA FINANTZIAR BLOKEOAREKIN BUKATZEKO BEHARRA" izeneko Ebazpena onartu zuela. Espainiako Gobernua ebazpenaren alde botatu zutenen 59 herrien artean dagoela, hiru aurka atera zirelarik (Estatu Batuak, Israel eta Rumania).

Azaldu ditugun datuen aurrean, Udal-Korporazio honi zera proposatzen diogu:

- 1.- Nazio Batuen Ebazpena publikoki berea egitea.
- 2.- Blokeo honek sortu dituen ondorio latzei aurre egiteko egiten ari garen kanpainan ekonomikoki parte hartzea.

Mozioa aztertutik, CUBari blokeo honek sortu dizkion ondorio latzei aurre egiteko, HOGEITABOST MILA (25.000,-) peztatako diru-laguntza ematea, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

IGNACIO JUAN JAMBRINA Jaunari, Goiz Argi Okindegiko terrazan aislantea emateko eta uralitakin errekaldera kaida emateko baimena eman zaio, uralita beharrean, teilarekin egiteko baldintzarekin.

ASINTXIO EIZAGIRRE Jaunari, Goiz Argi Etxearen 2.gn esk. sukaldeko berrikuntzak egiteko baimena eman zaio.

HERMENEGILDO IRAZU Jaunari, Ugarte Etxearen 2. Ezk. argi-kontadorea kanpoan jartzeko eta labadora leiho azpira aldatzeko, etxeko paretean obrak egiteko, baimena eman zaio.

ANTONIO ZABALA GARMENDIA Jaunari, bere etxeko balkoiako leiho berria jartzeko baimena eman zaio.

M^a PILAR MIRANDA Andreari, Ainene Berri, 2. Ezk.ean bainugelako berrikuntza egiteko baimena eman zaio.

ARANTXA ARROSPIDE Andreari, Zubiaurre, behera ezk.ean leiho berriak jartzeko baimena eman zaio.

JOSE ARZADUN EGILUZ Jaunari, Liatzako Bordari erretila emateko baimena eman zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdia direnean.